

## **EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK IRAKASKUNTZAN**

Aipaturiko agerpenaren gehigarri gisa, Foruko Euskaltzaindiaren barne-jardunaldietan bigarren bat gehitzea erabaki zen Abuztuaren 29an, eta Irailaren 28an, Euskaltzaindiko batzarrean, aurkeztua:

“Tokian tokiko hizkera dakiten haur eta nagusiei euskara batua irakastean, sarritan, ez dira oso kontutan hartu izan ohi batetik besterako bidea egiteko nahitaez eman behar diren urratsak, eta ondorioz, elkar osagarri eta bizigarri izan beharko luketenok benetako zubirik gabe geratu ohi dira, bion kaltetan gainera.

Pedagogiazko orientabideak ematea, Euskaltzaindiari zuzenki ez badagokio ere, auzi honek euskararen sendotzean eta hedatzean duen eraginarengatik, biziki gomendatzen du, tokian tokiko euskara zenbat eta urrunago gertatzen den euskara batutik, hainbat era arreta handiagoz elkar osatze bidea zain eta lant dadin.

Azken helburu nagusi eta bakarra euskara bizieraztea, sendotzea eta hedatzea delarik, inola ere ezin pentsa daiteke tokian tokiko euskara eta euskara batua elkarren aurkako gerta litezkeenik, baizik eta bata bestearen nahitaezkoa osagarri eta aberasgarri direla zinez.

Hau honela delarik ere, tokian tokiko euskarak dituen desberdintasun eta ñabardurak ugari direla gogoan edukirik, lehen aipaturiko adierazpenean zioena bera berresaten du Euskaltzaindiak, alegia, tokian tokiko euskara eta euskalkia aintzakotzat hartzean eta lantzean, hizkuntzaren oinarri batuari leialtasuna gorde behar zaiola, euskalkiak indartzearen aitzakiaz joera zatikatzaile batetan gal ez gaitezen.

Bestalde, literatur euskalki desberdinetako ereduak eza-gutzera emateko eta irakasleen eginkizuna errazteko asmoz, Euskaltzaindiak berehalatik ekingo dio euskalkizko idazleen antologi bat eragiteari eta argitara emateari.

Azkenik, argi eta garbi utzi nahi du Euskaltzaindiak, bere garaian harturiko erabakiak eta egindako gomendio jakinak salbu, oraindik urrats asko dagoela euskara batua burutzeko eta inork ez duela euskara batua omen delako baten monopoliorik. Beraz, idazleak eta irakasleak beren eskuko dira tradizio ongi ezagutu baten ildotik, pedagogiazko eta literatur adierazpeneko premien arabera, nork bere euskal sen hoberenaren argitan jokatzeko, euskararen funtsezko oinarri batu horrekiko leialtasunean”.